

ESKOLAGUNE

Ekoetxea Txingudi

Behaketarako lehen hegaldia

Lanbide Heziketa

ARLOA/IKASGAIA: Zientzia Aplikatuak

Esperientzia paregabe honetan, benetako landa-ornitologo bihurtuko zarete. Murgildu benetako ikerketa ekologikoan, Plaiaundiko Parke Ekologikoko hegazti-fauna aztertzeko teknika zientifikoak aplikatzen dituzuen bitartean.

Prismatikoak lepoan eta identifikazio-gida eskuan, hegaztiak beren forma, kolore eta portaeragatik ezagutzen ikasiko duzue, eta errolda bat egingo duzue inguru zoragarri honetako hegodun biztanleak nortzuk diren jakiteko.